

# ISRAELGO PALESTINARRAK JOMUGAN

Netanyahu lehen ministroak Israelgo palestinarrenganako bestelako jarrera bat agertu eta haiek limurtzen saiatu da



POLITIKA / GAUR8

Benjamin Netanyahu lehen ministroak Israelgo hiritartasuna duten palestinarrenganako jarrera aldatu duela ematen du azken hauteskunde kanpaina. Beti iraindu eta mespretxatu izan dituen arabiar horien botoa bilatzen du orain. Edo, behintzat, bazterrak nahasi eta haien boto kopurua jaitsaraztea.

retero alkateak babesa eman zion, baina dozenaka pertsonak manifestazioa egin zuten Netanyahuri «ongi etorria» ez zela esateko. Israeldar hiritartasuna duten palestinarrek diskriminazioaren biktima dira, batez ere Parlamentuak 2018an Israel «herri juduaren estatu-nazio» gisa definitzen duen legea onartu zuenetik eta arau horrek juduei ematen dietetik autodeterminaziorako eskubide «bakarra». Horrek lege maila eman zion betiko bazterketari, ofizial eginez.

Ez dute eskubide berdinik ez lur jabetzagatik ez zerbitzu sozialak edo dirulaguntzak jasotzeko.

Juduek baino espetxe zigor gogorragoak jasotzen dituzte eta Gobernua ez da inoiz arduratu baliabideak legeko moduan banatzeaz.

Haien hezkuntzan, azpiegiturretan edo osasungintzan askoz txikiagoa da inbertsioa. Langabezia eta pobrezia, ordea, handiagoak.

2015eko hauteskundeetan, Netanyahuk eskuinaren beldurarekin jokatu zuen, eta hauteskunde egunean botoemaile arabiarrek hauteslekuetara «masiboki» joango zirela ohartarazi zuen, boto ultrasionista gehiago bereganatzeko. Kritika ugari jaso zituen horregatik eta barkamena eskatu zuen gero.

«Ez dago zalantzarik Netanyahu desberdin bat ikusi dugula azken asteetan», idatzi zuen «Yediot Aharonot» egunkari israeldarrak.

Egunkariaren arabera, estrategia aldaketa horren helburu nagusia ez da boto palestinarrek eskuratzea, segurtasunaren ikurra erabiliz batzuk bereganatu ahal baditu ere.

Netanyahu konturatu da arabiarren aurkako gorrotoa zenbat eta gehiago bultzatu, orduan eta handiagoa izango dela haien parte-hartzea hauteskundeetan. Horrela, Israelgo komunitate palestinarra lasaituz gero, ordezkari gutxiago izango dute Legebiltzarrean eta sionistek gehien-go osatzeko aukera handiagoa izango dute. 2020ko martxoko azken bozetan, al-

**M**artxoko hauteskundeak izateko aste gutxi batzuen ondorengoak dira. Azken urteetan ez du zalantzarik izan «terrorismoaren aldekoak» zirela esateko edo beste hitz arrazista batzuk erabiltzeko.

Baino orain «kapitulu hori itxi egingo da», ziurtatu zuen lehen ministroak, martxoaren 23ko hauteskundeetako kanpaina (laugarrenak Israelen bi urte baino gutxiagoan). «Oparotasun, integrazio eta segurtasun aro berri bat» hasiko dela hitzeman zuen. Herri arabiarretan «Israelgo historiako gobernu guztiek batera baino gehiago» inbertitu duela ziurtatu zuen.

Lehen ministroak beste herri palestinar batzuk ere bisitatu zituen, eta eremu arabiarretan delinkuentziaren aurka borrokatuko dela eta udal aurrekontuak handituko dituela agindu zuen. Ali Salam Naza-

retzeko palestinarrek Netanyahuren kontrako protesta batean, lehen ministroak bisita egin zuen egunean. Zapata mespretxu ikurra da arabiarren artean.

Ahmad GHARABLI | AFP

**Netanyahu hautagaiak «arabiar boto-emaileak nahastu nahi ditu»: alderdi guztiak berdinak direla eta ez dagoela bozkatzera joateko arrazoirik pentsarazi nahi die**

**Alderdi arabiarren zerrendak botoen %87,2 lortu zituen Israelgo arabiarren artean, hau da, 15 eserleku. Azken inkesten arabera, 11 ordezkari baino ez lituzke lortuko martxoan**

Arabiarrek Nazareteko herriarren %20 inguru dira. 1948an Israelgo Estatua sortu zenean, beren herrian geratu

## «APARTHEID»-A, HITZ TABUA ISRAELDARREN AHOTAN

derdi arabiarren zerrenda bateratuak («Netanyahu boteretik kentzea») botoen %87,2 lortu zituen Israelgo arabiarren artean, hau da, 15 eserleku.

Ordezkar horiek, ondoren, babesa eman zioten Netanyahuaren aurkariari, Benny Gantzi. Gantz ere kolonizazioaren aldekoa da, baina helburu nagusia orduan Netanyahu behingoz kanporatzea zen.

Hala ere, lehen ministroak koalizio gobernua eratu zuen eta Gantzen alderdiarekin (Urdin eta Zuri) ituna egin zuen.

Joan den abenduan hitzarmena apurtu egin zen, ordea, eta parlamentua desegin zen berriro.

“Maariv” egunkariak ostira-lean argitaratutako inkesta baten arabera, Netanyahuaren eskuinak 60 eserleku lor ditzake martxoan. Hala ere, Israelgo hauteskunde sistemaren arabera, 61 eserleku behar dira gobernua osatzeko.

Amal Jamal Tel Aviveko unibertsitateko zientzia politikoe-tako irakaslearen arabera, Netanyahu «boto arabiarrek lortu nahi ditu, baina batez ere haien Zerrenda Batua ahuldu nahi du».

Badirudi Zerrenda Batuaren aliantza pitzatzen ari dela, eta Netanyahu Mansur Abasengana hurbildu da. Parlamentua desegiteko bozketan Arabiar Zerrendako kide horrek kontrako botoa eman zuen. Bartzuek lehen ministroarengana babes keinutzat jo zuten.

Azken inkesten arabera, Zerrendak 11 eserleku baino ez litzuke lortuko martxoan.

Yoav Stern Israelgo analista-aren arabera, Netanyahu «arabiar boto-emaileak nahastu nahi ditu»: alderdi guztiak berdinak direla eta ez dagoela bozkatzera joateko arrazoirik pentsarazi nahi die.

Israel «apartheid erregimena» al da palestinarekiko duen politikagatik? GKE israeldar garrantzitsu batek baietz esan du, baina agintariekin berehala debekatu dute horren aipamenik egitea eskoletan, «tabu» hitza erabili ondoren.

Israelen eta Palestinaren arteko gatazkaren semantikak eztabaida bortitzak eragiten ditu batzuetan, batez ere sare sozialetan.

B 'Tselem giza eskubideen aldeko Israelgo erakundeak zalaparta sortu zuen joan den asteen, 1980ko hamarkadaren amaieran sortu zenetik lehen aldiz Mediterraneo itsasotik Jordan ibairaino Israelek duen politika deskribatzen duen txosten bat argitaratzean. «Ondorioztatu dugu ez daudela bi erregimen itsasoaren eta ibaiaren artean (bata israeldarra eta bestea palestinarra). Bakarra da eta talde batek beste baten gainetik duen nagusitasuna garatzeko eta sendotzeko egiten du lan: juduek palestinaren gainetik», adierazi zuen B 'Tselem erakundearen zuzendari Hagai el Ad-ek.

«Dagoen apartheid erregimena bat dator zehatz-mehatz testuliburu-tako definizioarekin», azaldu zuen, eta bere erakundeak hitz hori ez duela arinkeriaz hartzen. Biztanleria beltzari dagokionez garai bateko Hegoafrikako politika baztertzailea gogorarazten du hitz horrek.

Palestina pertsona eta erakunde ugari apartheid politika hori salatu izan dute, Zisjordanian, Jerusalem ekialdean eta Gazako Zerrendan.

Baina Israelgo giza eskubideen GKE handiena ere jarrera horretan ikusteak banaketak azaleratu ditu. Hebrear prentsak ia ez du B 'Tselem taldearen jarrera berria aipatu; ingelesezko tokiko prentsak eta arabiar eta nazioarteko hedabideek bai, ordea.

Jarrera hau «iraultzailea» da, idatzi zuen Gideon Levy iruzkingileak “Haaretz” Israelgo egunkariaren ingelesezko bertsioan, «juduen nagusitasuna» lurralde okupatuetan ez ezik, Mediterraneotik Jordaneraino ere zabaltzen dela gogorarazten baitu.

«Ohitu hitz horretara: 'apartheid'. Apartheid erregimena. Halako batean bizi gara, haren parte gara, aldekoak gara. Hori da gure herrialdea»,

gaineratu du Israelgo eskuinak gorroto duen analista horrek.

Bi arrazoik bultzatu dute GKEa errealtatearen definizioa aldatzera, El Adek azaldu duenez.

Lehenik eta behin, 2018an Israelen izaera judua berresten duen estatu-nazioaren legea aldarrikatu zen, eta beraz, baita «bigarren mailako» estatusa ere 1948an herrialdea sortu zenetik Israelen bizi diren arabiarrentzat – palestinarentzat eta ondorengoentzat. Bigarrenik, iaz Israelek Zisjordanian zati batzuk anexionatzeko egindako iragarpena dago. Gauzatu ez zen arren, asmoa ez dute bertan behera utzi.

Yoav Galant Israelgo Hezkuntza ministroak debekatu egin zien eskolei «Israel mespretxuz eta oker izendatzen duten» erakundeetako kideak gonbidatzea. Informazio hori agertu zen, bai, tokiko prentsa hebrearrean.

Hurrengo egunean, Hagi el Adek, bideokonferentzia bidez, Haifako bigarren mailako institutu bateko ikasleen aurrean hitz egin behar zuen. Debekua gorabehera, aurkezpena ez zen bertan behera geratu, eta nerabeek GKEko zuzendaria jazarri zuten.

«Galderetako bat izan zen ea

muturreko erakunde bat ote ginen. Erantzun nuen gure jarrera ez dela muturrekoa, baina errealtatea badela muturrekoa», esan zuen El Adek, ikasleen galderak Gobernuaren jarrerarekin bat zetozela ikusita.

«Azken urteetan diskurtsoaren narriadura bat izan da. Neurri handi batean nazioarteko ekintzarik ezari egozten diot. Kolonia gehiago daude (juduak Zisjordanian), apartheid gehiago, eta inolako ondoriorik gabe: Europarekin harremana ona da, eta AEBekin ere hobera egin du».

Kolonia israeldarrek aurrera egin zuten Donald Trump errepublikanoak, Benjamin Netanyahu lehen ministroaren aliatuak, Zisjordanian lurraldeak batzearen alde egin zuenean. Zer gertatuko da Joe Biden demokratarekin?

B 'Tselem erakundeak Alderdi Demokrataren «alde aurrerakoiak» Bideni presio egitea nahi du, gaur egungo politika israeldarren babesa gutxitzeko.

El Aden ustez, ondo dago txostena Biden presidentetzara iritsi den unean argitaratzea. Israelen ireki ezin duen eztabaida atzerrian ireki nahi du.



Netanyahuren kontrako protesta Nazareten. Ahmad GHARABLI | AFP